# Erabakiaren ziurtagiria

## ERABAKIAREN DATUAK

Gaia: Balio publikoko udal titularitateko Jaizkibel mendiko lurren kudeaketaren helburuei buruzko udal akordioa.

Erabaki organoa: Osoko Bilkura, 2008-07-17koa.

## ZIURTAPENA

Erabakiak hitzez hitz hauxe dio:

8.- Balio publikoko udal titularitateko Jaizkibel mendiko lurren kudeaketaren helburuei buruzko udal akordioa.

Irati Aranburuk, Hirigintza eta Ingurumen gaietarako zinegotziak, esan du gaur goizean egindako Hirigintza Batzordean diktaminatu dela gaia, erabakiei berri bat gehituz, seigarren bat. Azaldu du proposamenaren helburua dela Aldundiak Jaizkibelekiko duen ardura idatziz jasotzea, landarediaren kontserbazioa azpimarratuz. Honela dio gaur goizean diktaminatutakoak eta onartzea proposatzen denak.

“Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2008ko uztailaren 17an egindako batzarraldian Haritz Salaberria, Irati Aranburu, Jon Legorburu y Roberto Sánchezen aldeko botoekin eta Kepa Garbizuren abstentzioarekin, DIKTAMINATZEN DU:

AURREKINAK

Jaizkibel mendiko 140 Ha. inguruko azalera udal titularitatekoa da, Balio Publikoko Mendia zk. 23A delakoaren barruan integraturik. Lurralde horiek Jaizkibel mendiaren hego aldeko hegian kokaturik daude eta muga, mendebaldetik, GI-3440 errepidea dute, ekialdean eta iparraldean Lezoko udalerriaren muga bera, kasu honetan uren banaketa arte heltzen delarik. Hego aldean lerro irregular bat du muga, maldarik handieneko eskualdeen eta titularitate pribatukoak diren landazabal lurren arteko marrari dagokiona.

Baso eta abeltzaintza erabilpenak dira nagusi, eta lurraldean barrena zenbait pista iragaiten dira aisia erabilpena ere badutenak, Hondarribiatik datorren Donejakue Bidearen tramu bat ere bertan barrena doalarik. Historikoki baso-sute handiak jasan dituen mendia izan da eta gaur egun garbi ageri dira, landaretzaren sarritasunari dagokionez, suteek erretako guneak errekuperatzeko egin izan diren ahaleginen emaitzak. Malda dezentea izaki, eta zorua ezegonkorra, eskualde osoa halaber oso sentibera da erosioari eta luiziei dagokienez.

Landaretzari dagokionez, momentu hauetan hostozabalen eta koniferen landaretza mistoen arteko konbinazioa da nagusi lurralde horietan, ekialdeko sektoreko parterik handienean hedaturik. Mendebaldean batik bat itsas pinuaren (Pinus pinaster) landaretzak ageri dira. Zenbait

puntu zehatzetan bertako landaretzaren guneak ageri dira, esateko ametza (Quercus pyrenaica) eta haritza (Quercus robur). Zuhaitz-mota horiek era berean ageri dira sakabanaturik eta tarteka esparru horren gainerakoan ere, sarritan ageri direlarik halaber urki ale banakak (Betula sp.). Suebaki gisa ezarrita dauden zuhaitz-landaretzarik gabeko guneak baliatuz, beste gune batzuetan ere sakabanaturik bezala, zaldi eta ardi ganadua ageri da, inguruetako ustiapenetakoak.

Udal titularitateko lurrak oro har 1997ko urteaz gero integraturik daude Garrantzi Komunitarioko Tokiaren barruan, ES2120017 Jaizkibel, Natura 2000 Sarearen parte izateko. Espazio babestu horretarako Gipuzkoako Foru Diputazioak landutako planifikazio-dokumentuetan asignaturiko xedea, zehazturiko lur horiei dagokienez, baso potentzialak berriro sortzea da, horien artean hariztiak eta ameztiak aurkitzen direlarik, konifera baso landatu berriak poliki-poliki ordezkatuz.

Gipuzkoako Foru Diputazioaren Mendi Areak azken urteetan garatu duen kudeaketa bideraturik dago, batik bat, basoetako suteetatik eratorritako ondorioak eragoztera eta konpontzera eta, bigarren hein batean, bertako berezko landaretza berreskuratzera. Berriki Lezoko Udala harremanetan jarri da erakunde harekin, hain zuzen Mendi Zuzendariarekin eta departamentu horietako teknikariekin, lurretara bertara bisita eginez, eta han egiaztatu ahal izan da egiten ari diren lanen emaitza.

AKORDIOA:

Lur horien jabea aspaldiko garaietakik Lezoko Udala dela kontutan izanik eta, beraz, horiei ematen zaien destinoaren erantzule herritarren aurrean, ondorengo deklarazio instituzionala egitea adosten du:

1. Jaizkibel mendiari loturiko Lezoko Udalaren herri lurren xede nagusia esparru osoan kontserbazio egoera egokian gauzaturiko Natura 2000 Sarearen barruko eremu honetako habitat naturalen bertako bioaniztasuna eta natur ondarea betiko basoa errekuperatzea eta kontserbatzea da, ametza eta haritza bezalako espezieren garapena bultzatuz, hori baita areako landaretza potentziala.

2.- Modu horretan, udal korporazioak bere egiten ditu Jaizkibel LIC kudeaketa planak (2005eko iraileko zirriborroa) deritzan dokumentuan planteatzen diren helburuak udal titularitateko lurrei dagokienez.

3. Nahitaez epe luzerako den helburu horren barruan, landaretza potentzialarekin bat ez datozen beste espezie batzuen presentzia hedatu daiteke, suteen aurrez aurre mendia babesteko neurri gisa edota bitarteko urrats gisa, baina ez azken helburu gisa lurralde horien erabilpenari dagokionez.

4. Helburu horiek abeltzaintza erabilpenekin bateragarri egin ahal izateko, behar diren neurriak hartu beharko dira bioaniztasunaren kontserbazioaren kalterik gabe garapena bideragarri izan dadin.

5. Akordio hauen bidez Lezoko Udalaren konpromisoa azalduz, horiek Gipuzkoako Foru Diputaziora igorriko dira, espazio horretan egiten duen kudeaketan integra ditzan eta bi aldeen arteko borondate-adostasun baten adierazpenaren bidez formaliza ditzaten, horrela, lurralde horren kontserbaziorako elkarlana eta helburu bateratua bermaturik gera daitezen.

6. Erabaki honen berri, Pasaia eta Hondarribiko udalei jakinaraztea eta ahal den neurria animatzea, beraiek ere neurri berak har ditzaten.”

Diktamena bozkatu da eta onartu da aldeko hamaika botorekin (alkatea, Irati Aranburu, Jon Legorburu, Silbia Folgueira, Iñigo Esnaola, María Pilar Legorburu eta Urko Lopetegi, Kepa Garbizu, Jesus Mari Martiarena, Enrique Figueroa eta Roberto Sánchez) eta abstentzio batekin (Mikel Antxon Arrizabalaga). Beraz, diktamena onartu egin da.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, alkate-lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena; nolanahi ere, Korporazio Lokalen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 206. artikuluak dakarren salbuespena du.

*8.- Propuesta para la adopción del acuerdo municipal sobre los objetivos de gestión en los terrenos de titularidad municipal del monte de utilidad pública Jaizkibel.*

*Irati Aranburu, concejala de asuntos de Urbanismo y Medio Ambiente, manifiesta que el tema se ha dictaminado en la comisión de Urbanismo celebrada esta mañana, añadiendo una nueva a las resoluciones, una sexta. Explica que la finalidad de la propuesta es establecer por escrito la responsabilidad que tiene la Diputación sobre el monte Jaizkibel, subrayando la conservación de la flora. Lo que se ha dictaminado esta mañana y se propone para aprobación dice así:*

*“ANTECEDENTES*

*En torno a 140 Has. de superficie del monte Jaizkibel son de titularidad municipal, integrándose dentro del Monte de Utilidad Pública nº 23A. Estos terrenos se encuentran en la ladera sur de este monte, teniendo por límites la carretera GI-3440 por el oeste, el límite del término municipal de Lezo por el este y por el norte, llegando en este caso hasta la divisoria de aguas. Por el sur limita con una línea irregular que corresponde a las zonas de mayor pendiente sobre las áreas de campiña, que son terrenos de titularidad privada.*

*Los usos principales son los forestales y ganaderos, discurriendo por el interior del terreno, varias pistas que también tienen un uso recreativo, albergando incluso un tramo del Camino de Santiago que proviene desde Hondarribia. Históricamente ha sido un monte muy afectado por los incendios forestales, apreciándose en la actualidad los resultados en cuanto a la densidad de la cobertura vegetal tras efectuarse plantaciones destinadas a recuperar las áreas afectadas por el fuego. La notable pendiente y la inestabilidad del suelo, determinan que sea una zona también muy sensible frente a la erosión y desprendimientos.*

*En cuanto a la vegetación, en estos momentos predominan en estos terrenos las plantaciones mixtas de coníferas y frondosas, extendiéndose en la mayor parte del sector este. En el lado oeste se observan fundamentalmente plantaciones de pino marítimo (Pinus pinaster). En puntos concretos se encuentran masas de vegetación natural como el marojal (Quercus pyrenaica) y el robledal (Quercus robur). Estas especies también se encuentran dispersas e intercaladas por el resto del ámbito, apareciendo también con cierta abundancia ejemplares de abedul (Betula sp.) Aprovechando las áreas sin vegetación arbórea que actúan como cortafuegos, con cabezas que también pueden aparecer dispersas en otras zonas, se observa la presencia de ganado equino y ovino, perteneciente a explotaciones del entorno.*

*El conjunto de los terrenos de titularidad municipal se integran desde diciembre de 1997 dentro del Lugar de Importancia Comunitaria ES2120017 Jaizkibel para formar parte de la Red Natura 2000. El objetivo asignado en los documentos de planificación elaborados por la Diputación Foral de Gipuzkoa*

*para este espacio protegido, en referencia a estos terrenos concretos, es el de la regeneración de los bosques potenciales, entre los que se encuentran los robledales y marojales, sustituyendo paulatinamente las plantaciones forestales de coníferas.*

*La gestión desarrollada durante los últimos años por el Área de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se dirige principalmente a resolver e impedir los efectos derivados de los incendios forestales, y en segundo término a recuperar la vegetación natural. Recientemente desde el Ayuntamiento de Lezo se han establecido contactos con esta institución, en concreto con el Director de Montes y técnicos de dichos departamentos, realizándose una visita a los terrenos donde se ha constatado el resultado de los trabajos que se vienen realizando.*

*PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:*

*Teniendo en cuenta que el Ayuntamiento de Lezo es propietario de estos terrenos desde tiempos inmemoriales, y por tanto responsable ante su ciudadanía del destino que se da a los mismos, acuerda realizar la siguiente declaración institucional:*

1. *El objetivo prioritario de los terrenos municipales del Ayuntamiento de Lezo asociados al monte Jaizkibel es la conservación y recuperación de la biodiversidad y del patrimonio natural, concretados en un estado de conservación favorable de los hábitats naturales de este lugar de la Red Natura 2000: bosques naturales y maduros de marojo y de roble pedunculado que se corresponden con la vegetación potencial del área.*

2. *De este modo, la corporación municipal hace suyos los objetivos planteados en el documento denominado Plan de Gestión del LIC Jaizkibel (borrador de septiembre de 2005) en lo referente a los terrenos de titularidad municipal.*

3. *Dentro de este objetivo necesariamente a largo plazo, la presencia de otras especies que no se correspondan con la vegetación potencial, puede entenderse como una medida para la protección del monte ante los incendios forestales o como un paso intermedio, pero no como el destino final en cuanto al uso de estos terrenos.*

4. *Para compatibilizar estos objetivos con el uso ganadero, deberán tomarse las medidas necesarias que permitan desarrollarlo sin afectar a la conservación de la biodiversidad.*

5. *Expresándose mediante los presentes acuerdos el compromiso del Ayuntamiento de Lezo, se trasladarán a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que los integre en la gestión que realiza en este espacio y formalicen mediante un acuerdo de voluntades entre ambas partes, de manera que quede garantizada la colaboración y el objetivo común hacia la conservación de este territorio.*

6. *Notificar a los ayuntamientos de Pasaia y Hondarribia este acuerdo y en la medida de lo posible animarles a que tomen las mismas medidas."*

*Se ha votado el dictamen y se han dado once votos favorables (alcalde, Irati Aranburu, Jon Legorburu, Silbia Folgueira, Iñigo Esnaola, María Pilar Legorburu, Urko Lopetegi, Kepa Garbizu, Jesús Mari Martiarena, Enrique Figueroa y Roberto Sánchez,) y una abstención (Mikel Antxon Arrizabalaga). Por tanto, se ha aprobado el dictamen.*

Lezo, 2008-07-22. O.E.

Xabier Loiola, udal idazkaria.

Irati Aranburu, alkate lanetan.